



**Beñat Gaztelumendi**  
Bertsolaria

## Trikuaren eskola

**G**arrasi batzuk oroitzen ditut. Ume negarren antzeko antsiak etxe kanpoaldean. Eta gurasoak, etxeko zapatilak jantzita, udako gau sargori batean eskaileak lasterka jaisten. Presaka zabaldutako etxe sarrerako atea eta gure zakurra, atarian, ahoa odoletan zuela, negarrez. Eta nola abiatu ginen bere atzetik zelaira, eta ilunpetan nola ikusi genuen bola antzeko bat. Eta zakurrak nola ukitu zuen, nola eman zion buelta hanka batekin, nola saiatu zen hozka egiten eta garrasiak berriro, eta haur negarren antzeko antsia haiek. «Triku bat da», esan zigun amak. Eta makila batekin bueltaka eraman genuen zakurraren hortzetatik urrun. Eskularruak jantzi eta kontuz-kontuz utzi genuen basoan. Eta bazirudien gure eskuak hurbildu ahala zorroztu egiten zitzaizkiola arantzak. Hamarna pauso urrundu ginen beragandik. Eta seguru sentitu zenean berriz atera zuen burua oskoletik. Zakurra antsika ari zen oraindik gure ondoan. Ni, ordea, konturatua nengoen ordurako trikua zela benetan izututa zegoena. Ez nuen ulertzen, min ematen bazion, zergatik jarraitzen zuen zakurrak trikuari hozkaka. Eta zergatik zegoen trikua hain beldurtuta, bere arantzak zakurraren hortzak baino luzeagoak izanda. Baina ez nuen galderarik egin. Banekien beldurak aurpegi asko dituela, badirela beldurak ikusten ez direnak, umetan gauari niona, adibidez, logelan argi txiki bat piztuta berehala konpontzen zena. Baina bazirela beldurak aipatu behar ez zirenak, sekretuak zirenak, «helduen gauzak» zirenak.

Autoko bidaietan deskurritu nituen azken hauek, abuztuko oporraldietan. Autoko maletategia beteta abiatzen ginen urrutira, aire egokiturik gabeko garai haietan. Bidaiez baino gehiago oroitzen naiz auto-ko musikaz, Pantxoaz eta Peioz, Guk-ez, Itziarren Semear, Ardi Saldoaz; eta nola galdetzen genuen zer esan nahi zuen abesti batek eta zer besteak, eta nola erantzun orokor batzuen ondoren «helduen gauzak» zirela esanda bukatzen zen galde-

keta; eta nola erantzunaren ondorengo isiltasuna ere aire giroturik gabea bilakatzen zen, autoko kristalak ere izerditan hasi balira moduan kargatzen zela giroa, eta nola hona iristen ginenean, zubi-gain honetara, musika itzali egiten zen, eta inork ezer esan gabe isiltzen ginen autokoak; nola autoilara hasten zen, nola jaisten zen leihatila eta pasaporte eskatzen ziguten, eta uniforme urdin edo berdedunak begiratzten zuen auto barrura eta umeok ikustean aurrera jarraitzeko keinua egiten zigun, eta nola handik metro gutxira zeremonia errepikatzen zen uniforme eta hizkuntza aldatuta; eta azkeneko polizia atzean utzitakoan musika itzultzen zen autora, eta guk ere kasetearekin batera kantatzten genituen ulertu ez arren gizon haiekin, uniforme haiekin lotzen genituen abesti haiek.

**Kuriosoa baita bidaietan gertatzen dena: inoiz ez gara etxetik kanpo gaudenean adina identifikatzen nortasun batekin. Nolako grina sortzen zitzaigun esateko “SS” ma-**

**trikulakoak ginela Andorran edo Suitzan edo Herbehereetan ere, abesti haietakoak, «egun on» edo «eskerrik asko» hitzetakoak ginela; ardi latxetakoak.** Eta oporretatik bueltatutakoan nola saiatzen ginen gure nortasuna ezkutatzten, musika itzaltzen, matrikula eta ardiak disimulatzen. Ederra da munduko hiritar izatea, poltsikoan daukazun pasaportearen arabera.

Gaur ere auto-ilarak daude Biriatur. Eskuineko leerroan pilatuta daude kamioiak. Leihatilatik kanpo daramat ezkerreko besoa. Irratiak aipatzen ditu Normandia, Estatu Batuak, Niza, Munich, Siria eta Irak. Nirearen aurreko autotik bi gizon atera ditu poliziak, bizar luze-luzeak eta azal beltzaranak dituztenak ageriko nortasun. Nortasun agiririk erakutsi gabe pasatzen utzi didate niri. Mundua bere mugetan korapiloak egiten ari da nonbait: hesiak Mexikon, Melillan eta Gazan; eta poliziak Idoimenin eta Biriatur. Eta trikuak bezala, nik ere nire oskoleko leihotxo itxi dut. •



Gaur ere poliziak eta auto-ilarak daude Biriatur.

Isabelle MIQUELESTORENA